

1. JARDUERA: KOLOREAK

Jarduera hau garatzeko, erleari seinaleak eman behar dizkiozu leku ezberdinetara iristeko. Ariketa hauek ordenean egin behar dira eta erlea beti irteerako lekuan egon behar da; hau da, karratu beltzean.

➤ Lehenengo ariketa:

1. Joan irteeratik kolore gorrira.
2. Joan irteeratik kolore urdinera.
3. Joan irteeratik kolore arrosara.
4. Joan irteeratik kolore berdera.
5. Joan irteeratik kolore laranjara.

➤ Bigarren ariketa:

1. Zein kolore sortzen da, kolore gorria eta horia nahasten badira? Joan kolore horretara.
2. Zein kolore lortuko dugu, gorria eta urdina nahastuz? Joan kolore horretara.
3. Zein koloretara helduko gara, kolore laranja eta horia nahastuz? Joan kolore horretara.
4. Zein kolore lortuko dugu kolore horia eta urdina nahastuz? Joan kolore horretara.
5. Zein kolore sortuko da kolore zuria eta gorria nahasten baditugu? Joan kolore horretara.
6. Zein kolore lortuko dugu, kolore berdea eta horia nahasten baditugu? Joan kolore horretara.

➤ Hirugarren ariketa: (denbora badago)

1. Nola lortzen da kolore laranja? Joan bi koloreetara.
2. Nola lortzen da kolore urdina? Joan bi koloreetara.
3. Nola lortzen da kolore morea? Joan bi koloreetara.
4. Nola lortzen da kolore arrosa? Joan bi koloreetara.
5. Nola lortzen da kolore berdea? Joan bi koloreetara.